

24/2026 Irizpena, uztailaren 2koa: Ordenamendu juridikora egokitzea maiatzaren 2ko 10/2026 Foru Legea, itunpeko unitateak luzatzeari eta funts publikoz sostengatutako ikastetxeetako eskola-unitate bakoitzeko gehieneko ikasle-ratioa oro har jaisteari buruzkoa.

Eskatzailea: Nafarroako Parlamentua

Txostengilea: Ana Clara Villanueva Latorre

Interesa: 20/2026 Foru Legea: lege berezia. Konstituzio-doktrina. Konstituzionaltasun-kanonak betetzea. Komenigarritasun- eta egokitasun-irizpideetara egokitzea, konstituzionaltasunaren eta legezketasunaren parametro zorrotzetara bideratuta.

Nafarroako Kontseiluak maiatzaren 20ko 10/2026 Foru Legearen behin betiko testua aztertu du, itunpeko unitateak luzatzeari eta funts publikoz sostengatutako ikastetxeetako eskola-unitate bakoitzeko gehieneko ikasle-ratioa oro har jaisteari buruzkoa, irizpena eskatu duten bi parlamentu-taldeek egindako galderei erantzuteko helburuarekin.

Horretarako, jatorrizko lege-proposamenari buruzko 23/2026 irizpenaren oinarrietatik abiatzen da Kontseilua, ezinbestean.

Hala, irizpenean, berretsi egiten dira honako gai hauei buruzko hausnarketa juridikoak: Foru Komunitatearen hezkuntza arloko eskumenak –legegintzakoak zein betearazleak– mugatzen dituen konstituzionaltasun-blokea; hezkuntzarako eskubideari eta irakaskuntza-askatasunari buruzko doktrina konstituzionala; ikastetxeen eta hezkuntza-programazioaren arloko oinarritzko legeriak osatutako arau-multzoa (besteak beste, hezkuntza-itunen arloko araudia eta, bereziki, betekizunak eta lehentasun-irizpideak eta itunak berritzeko eta aldatzeko moduak); eta arauaren 1. eta 2. artikuluen azterketa (ordenamendu juridikoarekin bat datozen alderdiak eta zalantzak sorrarazi dituztenak).

Zehazki, Kontseiluak oinarritzat hartzen du –Estatuaren oinarritzko legeriaren esparrua aintzat hartuz eta hura errespetatuz– Nafarroako Foru Komunitateak hezkuntzaren arloko arauak emateko duen eskumenari buruz emandako irizpena. Hala, Kontseiluaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak irizpideak ezartzen ahal ditu, honako helburu hauetarako: batetik, hezkuntza-itunak adosteko, berritzeko edo aldatzeko, hezkuntza-itun horiek oinarritzko araudiak ezarritakoez bestelakoak badira ere –baina oinarritzko araudiaren mugen barruan–; bestetik, itunen iraupena finkatzeko, oinarritzko gutxienekoak errespetatuz; eta hirugarrenik, gehieneko ratioak murrizteko.

Jarraian, irizpenak bi parametrotatik aztertzen ditu gai horiek.

Lehenik eta behin, kontuan hartzen da Konstituzio Auzitegiak 10/2026 Foru Legea *lege berezi* gisa kalifikatu zuela, haren konfigurazioaren arabera.

Eta bigarrenik, kontuan izan dira kontsulta egin duten taldeek eskatutako *komenigarritasun- eta egokitasun*-parametroak, zehaztuz parametro horiek ezin direla aztertu konstituzionaltasun- eta legezkotasun-irizpide zorrotzetatik baino.

Beraz, Foru Legearen testu osoa aztertuta, Kontseiluak honela erantzun die planteatutako gaiei:

1.- 10/2026 Foru Legea *lege berezia* da; batetik, bere xedapen iragankorren 1. apartatuan eta, bestetik, xedapen indargabetzailean jasotako erregulazioagatik. Erregulazio hori autoaplikazio izaerakoa da, kasu eta hartzaile jakin batzuei zuzendua. Hala, ondorioz gabe uzten du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak egindako hezkuntza-itunen programazioa, eta, 2026-2027 ikasturterako itunpeko unitate kopurua ezartzen du, horiek mantenduz, ezabatu ziren 13 unitateak ere kontuan hartuta. Hala eta guztiz ere, eta itunpeko ikastetxeetako unitate horiei dagokienez, Kontseiluaren iritziz, arauak gainditu egiten luke konstituzionaltasun-kanona berdintasun-printzipioaren eta babes judizial eraginkorraren ikuspegitik, eta, beraz, arrazoizkoa, proportzionatua eta egokia izanen litzateke arau horren xedea betetzeko ezarritako helburu orokorrak lortzeko, alegia, kalitatezko hezkuntza bermatzea, gehieneko ratioen murrizketa orokor baten bidez.

Hortaz, ondoriozta daiteke Foru Legea ordenamendu juridikoaren eta eskumen-antolamenduaren arabera dela.

2.- Hala eta guztiz ere, eta abiapuntu gisa harturik arauaren xedapenen izaera berezi hori, Kontseiluak adierazten du ez duela datu nahikorik zehazki ezagutzeko 10/2026 Foru Legeak irakaskuntza publikoko hezkuntza-plangintzan izan duen irismen zehatza. Alde batetik, kontuan izanik aurreko ikasturteko unitate guztiak mantentzen direla, Kontseiluak ez du arrazoirik ikusi urratutzat jotzeko berdintasun eta babes judizial eraginkorrerako oinarritzko eskubideak. Horrez gain, Kontseiluaren ustez, arrazoizkoa, proportzionatua eta egokia izanen litzateke lehen adierazitako helburua lortzeko. Hala ere, interpretatuz gero galarazi egiten dela, modu orokorrean, hezkuntza publikoan unitateak gehitzea, ez lirateke errespetatuko eskubide horiek eta, halaber, ez lirateke beteko parametro horiek. Dena den, kontuan izanik ez dagoela legearen irismen zehatzari buruzko daturik eta salbuespenezko izaera duela bere iragankortasunagatik, Kontseiluak ezin du baieztatu konstituzionaltasun-kanonak betetzen dituenik, baina, aldi berean, horrek ez du esan nahi

konstituzionaltasunaren mugak gainditzen dituenik ere.

3.- Kontseiluaren ustez, 10/2026 Foru Legearen artikulua ordenamendu juridikora egokitu ahalko lirake, baldin eta adierazitako oharrek kontuan hartzen badira.

Zehazkiago, 1.2 artikuluari dagokionez –haren arabera, itunpeko ikastetxeek irizpideak proposatu ditzakete, eta irizpide horiek Itunen Batzordeak baloratu behar ditu, nahitaez–, Kontseiluak uste du irizpide horiek zuzenbidearen arabera izan behar direla, baldin eta honela interpretatzen bada: lehenik eta behin, hezkuntza-administrazioak duela itun-eskaerak onartzeko edo ukatzeko eskumena, barne harturik itunak berritzea (edo aldatzea); bigarrenik, ikastetxeek irizpideak proposatzeko duten aukera ulertu behar dela eragindako sektoreek parte hartzeko duten eskubidearen barruan, Espainiako Konstituzioaren 27.5 artikuluan eta LOEren 109.2 artikuluan xedatzen den moduan; eta, hirugarrenik, Itunen Batzordeak ebaluatu ahal izan behar dituela irizpideak, proposamenak egiteko eskumenaren bitartez. Dena den, Kontseiluaren iritziz, ordenamendu juridikoarekin ez litzateke bat etorriko ebaluazio hori nahitaezkoa izatea.

2. artikuluari dagokionez –itunpeko irakaskuntza eta irakaskuntza publikoan gehieneko ratioak murrizteko irizpide berberak erabiltzea–, Kontseiluaren ustez, bat dator ordenamendu juridikoarekin. Hala ere, gutxienezko ratioak –eta, batez ere, irakaskuntza-unitateak– murrizteko irizpide berberak erabiltzea ez dator bat, Kontseiluaren ustez, ordenamendu juridikoarekin.

4.- Azkenik, Kontseiluak arauaren komenigarritasun- eta egokitasun-irizpideak aztertzen ditu. Hasteko eta behin argi utzirik konstituzionaltasun- eta legezkotasun-parametro zorrotzetan oinarritutako iritzia dela, Kontseiluaren ustez, 10/2026 Foru Legea aplikatuz itunpeko ikastetxeetan unitateak mantentzeko hezkuntza-plangintza bat etorriko litzateke ordenamendu juridikoarekin, bete egingen bailitzateke hezkuntza-premiak asetzeko legeko betekizuna, hain zuzen mantendutako 13 unitateetatik gutxienez 8tan, eta beste hiru oso hurbil egonen lirake. Horrez gain, unitate horiek guztiek bete egingen lukete aurrekontu-kontsignazioa nahikoa izatearen baldintza. Ondorioz, oro har, Kontseiluak uste du itunpeko unitateak mantentzeak ez lukeela ekarriko neurritz kanpoko ondorioz komenigarritasunaren eta egokitasunaren aldetik, kontuan harturik foru-arauak lortu nahi duen helburua.

Hala ere, Kontseiluari ezinezkoa zaio baloraziorik egitea hezkuntza publikoan unitateak mantentzeari buruz, hezkuntza publikoan ez baita ezartzen gutxienezko ratioarik edo eskaerak egoteko legeko betebeharririk, eta, halaber, ez dakielako zer irizpide erabili diren unitateak sortzeko edo

murritzeko, ez eta, luzapenaren ondorioz, zenbat ikasle dauden gela bakoitzean ere.

Azaldutako guztiaren ondorioz, Nafarroako Kontseiluak, ahanzi gabe artikuluen alderdi zehatzen batek sortutako zalantzak eta daturik ez duela 10/2026 Legeak 2026-2027 ikasturteko hezkuntza-plangintzan dituen ondorioak osorik baloratzeko, uste du legea bat datorrela Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketarekin eta Estatuko oinarrizko legeriarekin.